

GETARIA

HERRI IDENTITATEAREN DINAMIZAZIOA ETA PROIEKZIOA

Sarrera

Herri identitatearen proiektzioa eta dinamizazioa da lan honen helburua. Baina zeri esaten diogu herri identitatea? zer da proiektatzea eta zer dinamizatzea? Getariak bere identitatea du, herri orok gehiago gutxiago duten bezala eta kanpotik begiratuta identitate horren pertzepzio bat jasotzen du bisitariak eta barrutik, aldiz beste bat du bertan bizi denak. Herribaten identitatea hainbat faktorek osatzen dute kulturalak, politikoak, historikoak, ekonomikoak, globalak. Guztiek eragiten dute, mantsoago edo azkarrago, herri baten identitatearen osaketan. Lan honetan Getariako puzzlea osatzen duten pieza ahalik eta gehienak identifikatu eta haietako bakoitzaren bisioa bildu dugu. Getaria osatzen duten indar eragileak:

Kirola, ekonomia, hezkuntza, historia, auzoak, landa eremua, jarduera ekonomikoak, emigrazioa, herri mugimenduak, administrazioa, kultura, zerbitzuak, ostalaritza, hirugarren adina, gazteak...

Behin haiekin parte hartze prozesua burututa, diagnostikoa egin dugu. Horregatik prozesu hau herritarrek egin, herritik eta herriarengan pentsatuz egin da. Honakoak dira lan honek erantzuten dituen galdera nagusiak: Zerkezaugarritzen du Getaria? Zer eta nola nahi ditu baloreen jarri ezaugarri horiek? Zergatik? eta zertarako? Eta nola dinamizatu eta nola proiektatu hori guztia? zer indartu, zer sortu, zer aldatu? galdera nagusi horien erantzunen bilaketa da honako lan hau.

Helburua

Lan honen helburua Getariak bere buruaren errelatoa egitea eta hortik abiatuta etorkizunera proiektatzea da, nola barrurantz hala mundurantz begira. Getaria modu transbertsal batean ezaugarritzen duten baloreak eta ezaugarriak dinamizatzea eta proiektatzea, herri kohesioa eta herritarren saretzea bilatuz.

Bisioa



Lan honek bi bisio ditu:

1. Barrura begira: Herri identitatearen dinamizazioa

2. Kanpora begira: Herri identitatearen proiektzioa.

Nola?

Getariaren ezaugarri nagusiak identifikatu ditugu, herriko eragileekin batera burututako parte hartze prozesu batean zuzeneko elkarrizketa bidez eta dokumentazio lan baten ondoren. Identifikazio horren ostean Getariako herriaren osagai nagusiak gai-multzoka antolatu ditugu. Eta gai-multzo horietatik barrura begirako dinamizazio proposamenak zein kanpora begirako eskaintza proposamenak osatu ditugu.

Elkarrizketatuen lagina bi multzo handitan banatzen dira: Udal departamenduak

Herriko elkarteak, mugimenduak, erakundeak eta norbanakoak. Lan honek 3 fase izango ditu:

1. Fasea

Informazio eta iritzi bilketa, erradiografia eta ondorioak

2. Fasea

Proposamenen hautaketa eta lanketa inplikaturako eragileekin batera. Udalbaliabideak eta egitura kudeatzailea sortzea.

3. Fasea

Proposamenen ezarpena.

Azken emaitza

Lan honek proposatzen duen azken emaitzaren arrakasta neurtzeko adierazleak ez dira izango hainbeste bisitari kopurua, egonaldiaren iraupena edo kontsumo gastu batezbestekoa. Lan honen arrakastaren adierazle izango dira getariarren ondare materialaren eta inmaterialaren babesa, baloreen sendotzea, herri kohesioa indartzea eta herri izaeraren dinamizazioa.

Elkarrizketatuak

- Udala-Alkatetza: Enplegu sustapena, garapen ekonomikoa, hezkuntza/
- Hirigintza/Aniztasuna parekidetasuna
- Udala-Kirola eta hizkuntza zinegotzia
- Udala-Euskara eta auzoak zinegotzia eta teknikaria
- Udala-Kultura eta gazteria zinegotzia
- Udala-Turismo teknikaria Udala Kultura teknikaria
- Turismo Bulegoa

- Gizarte zerbitzuak

Udal departamenduez gain, herriko 23 eragilerekin burutu dira elkarrizketak.

- Artzape herri aldizkaria
- Balentziaga Museoko zuzendaritza
- Caritas elkarte
- Gazte mugimendua Getariako Arraun Elkarte
- Getariako Arrantzale Kofradiako zuzendaritza
- Getariako Jubilatu eta Ezinduen elkarte
- Getariako Txakolina Jatorrizko Izendapeneko zuzendaritza
- Gure Txeru Kultur elkarte
- Herri Eskolako zuzendaritza
- Herri Eskolako Herri Kurrikulumeko proiektu arduraduna
- Irakurle taldea
- Mariñak Getaiko Talde Feminista
- Musika Banda
- Ostalaritzako ordezkariak
- Tonpe Getariako Guraso elkarte eta lagunak
- Urritza Aisialdi Elkarte
- Sare konpontzaileak
- Zanbuka Guraso elkarte
- Askizuko auzotarrak
- Meagaseko auzotarrak
- San prudentzioko auzotarrak



GUZTIRA: 23 eragile eta 113 herritar, 1200 biztanle ingururen partaidetzabiltzen dutenak.



Egindako galderak honako hauek izan dira,abiatzeko:

Zein da zuen jarduera eremua? Zuen prozesu historikoan zein unetan ikustenduzue zuen elkarte/erakundea?

Nola ikusten duzue zuen funtzioa Getariako herrian? Zein egoeratan zaudete orain? herritarrekiko engaiamendu maila?

Nola ikusten duzue Getaria zuen eremutik?

Getariako herriak zein ezaugarri dituela esango zenukete? Zeintzuk dira herriaren ahulguneak? zeintzuk indarguneak? Ze proposamen egin nahi zenituzkete herriarentzat?

Oinarrizko horiei, parte hartze prozesuan zehar sortutako galdera eta erantzun gehiago gehitu behar zaizkie. Eta jasotako erantzunetatik honakoa da egindako laburbiltzea eta errelatoa.

ONDORIOAK: GETARIAREN EZAUGARRIAK

1. GETARIA ITSAS HERRIA:



Getaria itsas herria da historikoki. Arrantza herria zehatzago esanik. Iraganean herriaren jardura ekonomikoa eta egitura soziala itsasoaren inguruan ardatz da. Gaur egun pisu ekonomikoa eta soziala ez du hainbestekoa itsasoko jardura tradizionalak, arrantza jardueraren gain behera eta flotaren murrizketa tarteko. Kuantitatiboki ez da lehengo arrantza jarduerak herrian duen pisua, baina kualitatiboki herriaren nortasunaren ikur izaten jarraitzen du. Oraindik mantentzen den arrantzontzi flotak Getariako familien esku jarraitzen du eta herriko ostalaritza ere jardura hortatik hornitzen da neurri handi batean. Eta ostalaritzak erakartzen dituen bisitariak ere beraz, itsas kulturak (zentzurik zabalenean ulertua) erakarrita datoz. Sinbolismo mailan ere presentzia handia du jardura honek oraindik, **arrantzale kofradia**, **sare konpontzaileak** eta **jublitaueen elkartearen** modukoak estuki lotuak daude jardura honi. Emigrazioa ere lotzen zaio, herriko flotako arrantzale asko herrira etorritako migranteak baitira. Antxoa eguna, San Antonak, marmitako bazkari herrikoa... itsasoaren bueltan burutzen diren ospakizunak dira oraindik ere.

Itsas nortasunari lotutakoa da halaber Getariako Arraun Elkartea ere, herriaren proiektioan eta sinbolismoan pisu handia duen kirol jardura. Etaberriagoak diren Surf taldea ere. Horrez gain hondartzak ere itsasoaren bestelako erabilera bat nagusitu du, aisialdiari lotua.

Beraz Getaria Itsas Herria ezaugarria oso transbertsala da eta erro sakonak eta zabalak ditu herrian. Dena den elkarrizketatutako herritarren pertzepzioak honakoa adierazten du.

Arrantzaren gainbehera:

Itsas jardura tradizionalak, lehen sektoreari lotuak beherantz doaz pixkanaeta ez dirudi etorkizunean joera aldatuko denik. Flota txikitzen doa eta bizimodu hori ere bai.

Herritarren bizitzetan duen presentzia gero eta sinbolikoagoa da, gero etairaganari lotuagoa.

Moilako bizitzaren galera aipatu da behin baino gehiagotan. Alegia lehen moila zen Getariarren bizimodu ekonomikoaren eta aisialdiaren erdigunea. Gaur egun erdigune hori galdua da. Itsasoari begira bizitzeko joera hori aldatzen ari da, kasu batzuetan lotura berriak sortu dira: surfa, hondartza, ostalaritza, aisialdia.

Bestetan besterik gabe iraganeko **jarduerak murrizten** joan dira: bajura eta alturako ontzien murriztea, kontserberen desagerpena, sare konpontzaileen beherakada, moila bizigune bezala zuen funtzioaren desagerpena, arraunlari kopuruaren eta harrobiaren gutxitzea eta abar.

Herritarren, haurrek, gazteek eta adin muga ertainekoek ez dute bizi beraienaurrekoek bizitako Getaria itsas herria. **Ondare inmaterialaren galera** bat gertatzen ari dela pertzepzio orokortua da: lehengo **arrantza tekniken eta tresnen galera, izendegien eta terminologiaren galera, ohituren ezezagutza, itsas ingurunearen ezagutza, urteko kanpaina bakoitzaren pertzepzioarena...** Lehengo zaharrek batera joango den ondare eta informazioa eta jakinduriaren galera. Orokortua da herritarrek duten pertzepzio hau.

Juan Sebastian Elkanoren itsas nabigatzailearen eta bere mundu biraren figura historikoa ere Getariaren itsas izaeraren ikur da, herrian bertan zein mundura begira eta herrian eragin nabarmena du. Azken 100 urtean lau urtean behin egiten den Elkanoren lehorreratzeaherriko gertakizun handietako bat da eta bere planteamenduan berrikuntza aipagarriak zian dira azken edizioan, parte hartze prozesu baten ondorioz txertatuak, hala nola genero ikuspegian edo ikuspegi historizistan. Herrian eztabaidagai da Elkanoren figurarekiko tratamendua oro har.



2. GETARIA OSTALARITZA HERRIA

Getariaren **ikurretako bat bere ostalaritza eta jatetxe eskaintza da**. Getariar askorentzat bizibide eta bisitariarentzat ikur erakargarria dira. Ostalaritza **identitarioa da**, Ostalaritzan kalitatezko eskaintzaren aldeko apustua egiten da eta Getariaren itsas identitatean oinarritzen da gehienbat. OstalaritzaK bere burua arrantzaleen, baserritarren, hizkuntzaren, herri jakinduriaren kate berean ikusten du, kultura eta bizimodu bati lotua.

Parrilla nabarmentzen da ikur guztien artean, garai bateko itsas bizimodutik datorren elementu gastronomiko eta kulturala. Garai bateko itsasontzien

ollera deituriko tresnatik eratorria da eta pixkana erreferentzialtasun erabatekoa hartzen joan da hamarkadetan zehar. Herriaren bereizgarrietakobat da arrainak prestatzeko tresna hau eta herriko erdigunean eta moilan duen presentzia nabaria da. Arraina da elementu zentrala eta itsaskiek eta kontserbek ere presentzia nabarmena dute eskaintza gastronomikoan.

Herriko itsasontzietatik hornitzen direla esan daiteke. Esan daiteke beraz, Getariaren ostalaritza eskaintza identitarioa dela, Oraindik ez da hainbat kostako herritan ikus daitekeen frankizia eta janari azkarreko kateetan oinarritzen, kanpoko gastronomia formulatan eta abar, Getariaren ikur den itsasoari eta bere deribatueri lotua baizik. Horregatik sektoreak kezka ikusten du arrantza jardueren gainbehera, nola kontserberena eta hurbileko arrantzarena ere, eta arrantzontzien galera, ekosistema beraren katebegizat baitute beren burua. Estuki lotua ikusten dute eskaintza gastronomikoa eta arrantza jardueraren arteko harremana. Kezkaz ikusten dute halaber jakinduria eta ondare inmaterialaren galera, eta aipatu moilako bizitzarena ere, horrek jatetxeen sektoreari zuzenean eragitenbaitio. Esan daiteke Getariaren izena eta marka kanpora gehien proiektatzenduen sektoretako bat dela.

Herritarren artean adostasun zabala dago Getariaren ikur nagusietako bat dela ostalaritza eta eskaintza gastronomikoa. Horrez gain askoren bizibidea da. Gazteentzat denboraldiko lanbide garrantzitsua da eta jatetxe eta taberna gehienak getariarren jabetza dira gaur egun oraindik ere. Jasotako alderdi negatiboen artean aipatuena da herritarrentzat baino bisitariarentzat eraikitako eskaintza gastronomikoa dela herrian nagusitu dena. Aipatzen da bertakoentzat ekonomikoki jasagarria izango den eskaintza gabezia, bai etaaisialdirako topagune espazio gabezia. Bisitariarentzat salbuespen bat dena,kalitatezko otordu bat egitea dagokion prezioan, herritarrentzat derrigorrezko gertatzen dela deritzo hainbatek. Herritarrentzat Gazteen artean nagusitzen da pertzepzio hau. Laburbilduz, bisitariarentzat egokitutakoeskaintza eta salneurriak direla da pertzepzioa. Honek gatazkak sortu izan ditu herritarren eta ostalaritzaren sektore batzuen artean.



3. GETARIA TXAKOLINAREN HERRIA.

Getariko ikur nagusietako bat txakolina da. Getaria hitza esanda zer etortzen zaizu burura planteatzean txakolina d horietako kontzeptu bat. Getariako familiek osatzen dute jarduera hau baina Getariako Jatorrizko Izendapena ez da soilik getariako bodegez osatua, 30etik 10 dira Getariko txakolina ekoizten duten upategiak. Herriko landa eremuan kokatua itsasoaren eta mendiaren arteko lotune nagusietakoak dira. Paisaia kultural bat ematen diote herriari upategi eta inguruetako mahastien bidez. Jardueraekonomikoa ere badira batetik mahastien zainketak eragiten duena,

upategietako jarduerekin eragiten dena eta txakolindegiek erakartzen duten bisitariak eragiten dutena. Oso ondo ekipatutako ta prestatutako upategiak dira. Txakolinaren ekoizpenaz gain zuzeneko salmenta eta bisita turistikoak eskaintzen dituzte bai eta ostatu hartzeko aukera ere hainbat kasutan.

Horrek herrira bisitari ugari erakartzen ditu urte osoan zehar. Horrez gainherrian hainbat jardueretan kolaboratzen dute ebento eta jai egun jakinetarako txakolina oparitut. Mahasti jaun eguna ospatzen da irailean eta San Anton egunean 1700 kopainguru zerbitzen dira.

Getariako izenaren enbaxadoreak ere bihurtzen dira kanpo jardueretan. Txakolin egunak egiten dira hainbat herritan eta kanpoko ardo eta gastronomia azoketan ere parte hartzen dute.

4. GETARIA EUSKARAREN HERRIA.



Getaria herri **euskalduna** dela, pertzepzio orokortua da. Datuek ere hala adierazten dute. Euskara da bertakoen arteko hizkuntz nagusia eta herria definitzen duen ezaugarri nagusietako bat da euskara.

Euskara Getariak bisitariarentzat duen erakargarritasunetako bat izan daiteke eta horretarako baloreen jarri behar da, ikusgarritasuna emanez eta modu baikorrean aurkeztuz. Euskara sustatuz bisitarien artean. **Artzape** da euskararen eragile nagusienetakoa, herri aldizkari eta webgune erreferentziala. Herri eskola bakarra egoteak ere kohesio linguistikoa ematen dio herriari.

Badira hala ere euskararen erabilerari eta presentziari eragiten dioten faktoreak. Aipatuenean artean: Udako eta oro har urte osoko bisitarien presentziak bestelako erderen presentzia areagotzen du, zerbitzu herri bat izanik nagusiki erdarak nagusitzen dira kaleetan. Bestalde haurrengan ere gaztelerak duen eragin gero eta handiagoa aipatzen da eta euskararen erabilera beherantz egin ote duen pertzepzioa dago. Honen arrazoiak, batetik kanpo eraginak gero eta handiagoak diren bizimodua dugula: internet, aplikazioak, publizitatea, telebista... horietatik guztietatik sartzen da erdara. Bestetik eskolan ere etorkinen seme alaben presentzia handitu izanak bere eragina du. Bi hauek ez dira soilik Getariak dituen arazoak, oro har euskararen ahulguneen artean dauden faktoreak dira. Aipatzen den beste galera bideetako bat **herriko hizkeraren eta terminologiaren gainbehera** pertzepzioa da. Bertako bustidurak, bertakohotzak, terminologia, toponimia gero eta gutxiago erabiltzen ote den pertzepzioa dago.



5. GETARIA ARRAIN NAHASTUAREN HERRIA.

Behin baino gehiagotan aipatu den kontzeptua da arrain

nahastua. Esaten zaio **adin desberdineko** lagunez kasualki ala ez sortzen den momentuko kuadrilari. Getarian hori oso arrunta da, herri txiki askotan gertatzen den modura. Jendearen gustokoa den ezaugarria da, baloratu egiten da gaitasun hori. Herriak duen **ezaugarri kohesionatzaile** nagusietako bat da. Baina arrain nahastuaren kontzeptua zabaldu daiteke adinaz haratago, Getarian **sexu identitate desberdinen** arteko elkarbizitza ere badago, ez binarioak diren getariarrak edo LGTBI kolektiboan daudenak. Sexu aukera desberdinen adierazpen eta ikusgarritasun urria aipatzen da ordea, horretarako konfiantzazko espazio gabezia eta presentzia eskasa oro har.



6. EMAKUMEZKOEN GETARIA

Genero ikuspegitik Getaria oso herri maskulinizatutzat jotzen delabehin eta berriz entzun ahal izan da parte hartze prozesuan.

Arrantza herria izanik, gizonen figura, arrantzalearena, armadoreena, patrioarena..., izan da beti zentrala herriko iruditegian eta hierarkia sozialean. Emakumezkoak hainbat ardura hartu baditu ere herriko eta familietako ehunduran, bere figura unibertso imaginarioan azpiko mailan kokatzen dela salatzen da. Halaber, ekonomiko ez da baloratua izan historikoki itsas jardueretan burutu duen lana esaterako sare konponketetan. Familia laguntza bezala ulertua izan da, ordainsaririk gabe. Kontserberena. da emakumezkoek ia eskusiban burututako beste lanbide bat. Sare konpontzaileen kasuan pixkana zenbait lorpen lortu dituztela aipatzen dute baina oso urrun omen daude. Kofradiaren aldetik errekonozimendu eta interes falta aipatzen da. Gainbeheran dagoen lanbidea da, batez ere lan baldintzei leporatzen diote hori.

Kalena ere, arraroa omen da oraindik emakumez edo neska gaztez bakarrikosatutako kuadrilak ikustea herrian edo tabernetan. Mariñak Getaiko Feminista Taldeak hartu du herritarren artean genero ikuspegiaren eta borrokaren lidertza eta horrek suspertu du genero ikuspegiaren beharra hainbat eremutan. Herriko beste eragile batzuekin elkarlana eta mobilizazioen deialdiak ere bere gain hartzen ditu. Getariako Udalak badu Berdintasun plan bat ere osatua arlo honetan, EMUM erakundearen eskutik eta herritarren parte hartzearekin osatua.



7. GETARIA MOILAKO HERRIA.

Aipamen ugariengatik jasotzen da txostenean ezaugarri hau ere. Getaria **moilako herria** izan da historikoki baina gero eta gutxiago da. Jendeari (batez ere adinekoei, arrantza kulturako familiakoei) pena ematen dio galerahorrek. Galera hori gertatzearen arrazoiaren artean aipatzen dira arrantza

jardueraren gainbehera, bizitzaren eta ingurunearen arautze eta legeztatze gaitasuna eta oro har bizimoduaren eta aisialdiaren ohitura aldaketak.

Moilako ardatza galtzearen pena jakinduria baten galerarekin lotzen da, itsaskien ezagutza, lekuen ezagutza, herri hizkera, terminologiak, ohiturak, arrantza moduak, lanbideak, jolasak... galtzen dira milako ardatza galtzearekin batera. Moilako bizitzak bere baitan dinamizatzen zuen ondare inmaterial oso baten galeraren pertzepzioa dago.



8. GETARIA HARRERA HERRIA

Gai haoni buruz eragile guztiei galdetu zaie, gai transbertsala izanik. Getariara etorritako etorkinekin **ez dago ageriko gatazkarik**. Arrantzan eta zerbitzuetan aritzen dira, ostalaritzan gehienbat. **Arrantza munduaren salbatzailetzat** ere joak dira Emigrazioa ez da uholde iritsi izan historikoki Getariara, apenas industriarik eza edo tren sarerik eza izan daitezke horren arrazoietakoa batzuk. Bertako arrantzaleen galera zein ostalaritzarako langileenak erakarri ditu azken hamarkadetan.

Herri eskola bakarra izateak topagune bihurtzen du. Herrian bizi diren haureta guraso gehienek han egiten dute bat. Eskola mailan badira zenbait zailtasun, hizkuntzarekin edo eskolaz kanpoko jarduerari lotuta, askotan arrazoi ekonomikoengatik (materiala, arropak edo ordainketak).

Hurrek oro har euskara ikasten dute eta gainerako herriko hurrekin nahasten dira. Ordea, gurasoek ez dute gainerako gurasoen artean leku egiten. Caritasek gaur egun banatzen dituen 24 elikagai otarretatik 22 kanpoko familientzat dira, horretarako baldintzak betetzen dituztela gizarte zerbitzuetako galbahea pasata. Caritasek harreman zuzena du emigrazioarekin eta janaria banatzeaz gain azkenean gizarte aholkularitza zerbitzua ematen dute. Diru laguntzak ere banatzen dituzte etorkinen artean. Etorkinen artean ere diferentziak aipatzen dituzte, beraien artean ere kategorizazioak sortzen omen dituzte. Oro har migrante familietako partaideek ez dute presentziarik herrian bisibilitate, ardura edo prestigidun lekuetan. Oro har lan prekarioak dituzte. Ez daude herriko elkarteetan, ez ardura postuetan ez mugimenduetan... Ezdago gatazkarik baina ez dira Getariko "herri biziaren" parte.



9. GETARIA MUSIKAREN HERRIA.

Getariak musika tradizio indartsua du. Batetik musika banda, mende pasako historia duena. Musika eskolan formatutako musikariek belaunaldiz belaunaldi eraman dute aurrera Getariako Musika BANDA. Ordea, harrobi gabezia bat du gaur egun, haizezko instrumentuei dagokiena. Aldiz gora egin du beste instrumentu batzuetarako joerak esaterako, trikitiak. Kezka handia dago azken urteotan Musika Bandaren etorkizunaren bueltan, harrobirik ezagatik.

Getariko gaztetxeak ere leku berezia bete du historian zehar musika eskaintza oparoa eta berezia eskaini duelarik. Bereziki erreferentziala izan dapunk zirkuitoan. 1983-84 ingurura jo behar da Gazte Asanbladaren historia hasierara iristeko. Gaur egun Graka herriko musika taldeek osatutako elkarteberria da erreferentzia.

Udalaren gerizpean antolatutakoaz gain ez dago uneotan eskaintza handirik, Grakaren dinamikaren zain, edo jaietan egiten denaz haratago.



10. GETARIA LANDA HERRIA

Getariaren ezaugarria da, bere ageriko kanpo proiektzioan hainbesteko pisua ez duena. **Getaria ez da soilik itsasoa. Baserriak eta landa eremuak** presentzia handia du historikoki. Horien artean upategiaketa mahastiak, aipa ditzakegu baina bestelako haziendak eta fruitu arboak, baratzeak ere aipa ditzakegu. Baserri giroa herrigunetik kanpoko auzo nagusietan kokatzen da batez ere: Eiziaga, Meaga, Askizu eta San Prudentzio. Euskarak ere bere aldaerak ditu ingurune hauetan. Getariaren ezaugarri berezietakotzat jotzen da mahastia eta itsasoaren gertutasuna, beste leku askok ez dutena. Halaber, aipagarriak dira Getariako lur eremuan dauden ibilbide ugariak. Ibiltari eta bisitari ugari erakartzen dituzte bide hauek. Inguru hauetan ibilbide ugari dago, trekkinga edo BTTekin egitekoak esaterako eta ugariak dira asteburuetan eta turismo denboraldietan bide horietan ibiltzen diren bisitariak. Inguruko herriein ere konektatzen dute Getaria ibilbide horiek, Zarautz, Zumaia edo Aiarekin. Baserri eta hazienda galera aipatzen da, oso bakanak dira egun horretatik bizi direnak. Aldiz, nekazal etxeak eta hotel txikiak sortu dira. Etxebizitzak eraikitzeo erreztasunik eza aipatzen da auzoetan. Getariarekiko atxikimendua Asizkun eta San Prudentzion handiagoa da. Apenas duten berriz, meagatarrek, Zarautzerako joera nagusitzen delarik



11. SAN ANTON GETARIAKO MENDIA

Zalantzarik gabe Getariako ezaugarri ezagunenetakoa. San Anton mendia **oso aipatua** da. Oro har pertzepzioa daherria San Antoni bizkar emanda bizi dela, gehiago baliatu daitekeela. San Anton Kantaurik duen balkoirik ederrenetakoa da kostalde osoan. Higerretik Matxitxakorainoko kostalde gutiaren talaia da. Halaber, San Antonek natur ondare handia du, landaredia eta hegaztietan bereziki. Horrez gain pandemiagaraian gazteen topaleku ezkutua nola izan zen ere aipatzen da. Getariaren ikonoetako bat da kanpoan "arratoia" ere esaten zaion mendia, baina gehiago da kanpora begira barrura baino. Oro har gutxi interbenitua dagoelauste da eta oreka baten barruan gehiago garatu daitekeela.

12. GETARIA HERRI BIZIA



Elkarrizketatutako eragileek **Getaria herri bizitzat** dute. Kultur dinamika aberatsekoa oro har eta elkarte sare aberatsekoa. Herri **kolaboratibotzat** dute eta duen tamainarako jarduera maila handikoa dela esaten dute. Kulturegitarau aldetik oparotzat jotzen da eta jai egitarau aldetik ere bai.

Era berean, herriko elkarteen parte hartzea eta sarea bizia da. Elkarrizketetanagerikoa izan da ezaugarri hori: Jubilatuek Udalarekin duten hitzarmena medio hainbat otordu prestatzen dituzte urtean zehar Udalaren eskutik herrira datozen ekimen eta bisitentzat. Musika bandak herriko hainbat ekimenetan parte hartzen du urtean zehar, dela arrauna, dela gabonak zein herriko jaietan. Berdin Musika Eskolak ere. Irakurle taldeak ostalaritzarekin batera egindako ekimena ere aipagarria da, idazleen egonaldiak antolatuzturismo denboraldi bajaran burutzeko, Getarian aurkeztuak izango diren obrak burutuz. Caritasek herrian prekaritatearen aurrean eta batez ereetorkinekin egiten duen lana aipagarria da baita eere. Arrantza kofradiak edo txakolin denominazioak udalarekin eta herritarrekin kolaborazioak egiten dituzte beraien produktuak eskainiz ebento eta jaietan. Ostalaritzak ere kolaboratzen du afarien zozketetan, Antxoa egunean eta abar. Gure Txeru elkarteak hainbat jarduera antolatzen ditu herrian azken 50 urteotan eta herriko ardatzetako bat da: pilota, dantza taldea, jostun ikastaroak, hainbat festa egunen ardura... Jubilatu eta Ezinduen elkarteak Udalarekin kolaboratzen du hainbat ekimenetako otorduen kargu eginez. Balentziaga Museoak bere espazioak uzten dizkio Udalari eta hainbat herri elkarteri.

Halaber beraiek antolatutako ebento zenbaiten zerbitzua hala nahi duten herriko elkartei uzten die, zerbitzu truke diru iturri gisa erabili dezaten. Horrelako adibideak ugariak dira eta Getariaren elkarte sareraren kohesioaerakusten dute.

Dena den antzeman dira puntu kezkarriak honetan ere. Herriko komertzioa desagertzen ari da eta bisitarienezako denda eskaintzabaino ez da geratzen. Arraindegi bakarra dago Getariaren moduko itsas herrian.

Kultur elkarteek beraien jarduetarako duten boluntario eskasia ere aipatuaizan da. Musika bandak ere tradizio eta arrakasta handia izanik ere herritarren artean, partaide krisi iraunkorra du eta kanpoko musikoetara jobeharra du. Arraun elkarteetan ere harrobiaren eskasia nabarmentzen da.

Alegia herrian tronkalak izan diren jarduera askotan beheraldia sumatzen da. Aldiz gora egin dutenen aurrean estelako kirol jarduerak dira esaterako surfa. Futbolera eta eskubaloira herritik kanpora joaten dira. Sexu aukeren

dibertsitatea adierazteko arrotasuna eta kultura eta espazio seguruen falta ere sumatzen da.

Gazteek aparteko berriazko aipamena behar dute. Antolakuntzari dagokionez, beren buruaren pertzepzioa ez da ona garaiotan. Gaztetxearen jarduera oso urria da eta Gazte Asanbladarena ere bai. Oro har urteko egutegiko jai desberdinen bueltan antolatzen dira, jai egitarauko ekitaldiak aurrera ateratzeko. Jaietatik kanpo, apenas.

Gazte eragilea den aisialdi elkarte bat da Urritza ere. Estimatuak sentitzen dira gurasoengatik eta abar. Baina ez dute berdin sentitzen administrazioetik.

Caritasek ere uste du bere lana ez dela nahikoa baloratzen. Ez dute ikusten konplizitate egiten dute lanarekiko. Caritasen kasuan, prekarietate egoerandauden familien elikagai banaketaz gain hainbat asesoritza laguntza ematen dute, horretan espezialduak ez badaude ere, eskariak direla eta. Oro har Getaria, duen biztanleria tamainarako, parte hartze eta jarduera maila handiko herrizat dute bere biztanleek.

13. GETARIA TURISMO HERRIA



Getaria **herri turistikoa** denaren pertzepzioa erabat hedatua da elkarrizketatutako eragileen artean. Turismoak gailurra udan jotzen badu ere, urte osora hedatu dela uste da. Herriaren ekonomian pisua duela onartzen da eta estrategikoa da batez ere ostalaritza, jatetxe, hotel, denda eta txakolindegientzat. Getaria Itsas herria izatetik turismo herria izatera pasa dela aipatzen da, horrek dakarren guztiarekin identitate eraikuntzan, ekonomian, urbanismoan, hizkuntza erabileran, natur ingurunean eta abar.

Pertzepzio oso aipatua da Getaria zenbait eremutan bisitariei begira egituratutako herria bihurtzen ari dela. Hori esaterakoan, albo kalteen artean ostalaritzaren enfokea, etxebizitzaren eskasiak eta prezioak eta aparkalekuak dira aipatuenak. Fisikoki ere **inbasiboa** dela aipatzen da, batez ere herriarenerdigunea, moila eta hondartza inguruetan eta kulturalki eta linguistikoki ere antzeko sentipena da. Herriko kale nagusia bisitariz betetzen dela da gauzarik aipatuena, herritar askok kale hori eta bere eskaintza saihesteraino.

Bada baita ere gaueko eskaintza turistiko falta aipatu duenik edota herrian mugimendu hori egotea gustuko duenik ere. Eguneko turismoa da gehienbat etortzen dena. Gauean ostalaritzan hutsunea dagoela aipatzen du batek baino gehiagok. Turismoa gastronomikoa da batez ere, jatetxeen, ostalaritzaren eta txakolinaren banderapean erakarria eta noski, bai eta hondartzek ere.

Ostalaritzaz eta txakolin upategiez gain, Elkano edo berrikiago Balentziaga bezalako figura unibertsalek ere eman dute Getaria ezagutzera eta bere erakargarritasunaren zati dira. Beste geruza batean mendi ibilbideetan kirol jarduerak egitera etortzen direnak ere aipatu behar dira, nola trekkinga hala BTTekin esaterako. Edo kirol itsasontzietan datozenak ere. Herritarrek inbaditu gabeko espazio gabezia salatzen dute. Turismoa Getariaren ezaugarri nagusien artean kokatu da azken hamarkadetan eta herriarengan argi itzal gehien eragiten dituen ezaugarrietakoa da, egunerokobizitzan eragin handienetakoa duena.



14. GETARIA ELKANO ETA BALENTZIAGAREN HERRIA

Getaria herri txikia izanik bederen **bi pertsonaia unibertsal** eman izana ere bada herriko berezitasunetako bat. Getaria munduan ezagutzera ematen dute, Batez ere Elkanoren figurak. Elkanorekiko ikuspegikritikoa ere badago, eta azken urteotan hausnarketa eta parte hartze prozesuak eman dira Elkanoren figuraren bueltan. Batez ere Elkanoren Mundu Biraren 500 urteurrena aitzakia hartuta eta Elkanoren lehorreratzearen planteamenduaren bueltan. Elkanoren gaiak sortzen ditu herritarren arteko tira birak, ez direnak tentsio maila handietara iristen, bainabere figura eta obrarekiko kritikotasuna aipatua izan da oro har pertsonaia onartua eta estimatua bada ere. Pertzepzio nagusia da Elkano eta Balentziaga gehiago dela herritik kanpo aipatzen diren figurak herrian baino, egutegiaren une jakinetan izan ezik. Elkanok uneotan ez du museo edo bisitaleku erreferenterik herrian baina Zarautz jauregiko proiektuekin leku nabarmena izango du. Sortuko den ekipamendu horrek Getariaren historiaren erakusleho nagusi izan nahi du.

Balentiagak ez du presentzia bera Getariarren barne iruditegian eta kanpo proiektzioan baina badu presentzia handiko elementu bat Elkanok ez duena: Museoa. Museoa herriaren gainaldean dago eta presentzia arkitektonikoa oso handia du. Museoa Patronatu batek eramaten du eta zatirik handiena Jaurlaritzak jartzen du. 60.000 bisitari inguru ditu urtean, erdiak atzerritarrak. Euskal Herritik %25 eta beste %25 estatutik. Moda munduan espezializatutan kanpotik datozenek ez dakite nora datozen, herriari dagokionez. Turistak bai, Getariara datoz eta bide batez Museoa ikusten dute. Herriarekin eta herritarrekin hainbat lazo ditu museoak. Hemen emakumezko erreferente gabezia aipatu behar da. Berriki Pepita Enbil soprano getariarraren izena jarri zaio Musika Eskolari baina bestelako izen eta figura historikorik eza handia da, gizonetzkoek Getarian duten iruditeriarekin alderatuz.



15. GETARIA NATURA HERRIA

Getariaren natur inguruneen artean nabarmentzen direnak honakoak dira:

Artelatzen basoa. Getariako artelatzen baso bakan eta garrantzitsua dago eta lehengoratzeko proiektua jarri da martxan, herritar batzuen ekimenez eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, Europako Batasunak babestutako Garate-Santa Barbarako eremuan. 700 artelatzen landatu dituzte zortzi hektarea pasa hartzen dituen eremuan. Gainera, mehatxupearan dauden bi iratzeko espezie birsartzeko ahaleginetan ere ari dira, eta beste hainbat espezieen aleak ere landatu dituzte: gurbitzak, gorostiak eta ametzak, besteak beste

San Anton mendiaren fauna eta landaredia berezia da eta Aranzadikburututako lana oinarri hartuta, baloreen jartzeko modukoa.

Kostaldekoko **mahastien paisaiak** dira Getariaren berezitasun nagusienetakoa. Upategien ustiapenez gain, paisaia kulturala osatzen dute, mendeetatik datorren nekazal jardueraren ekonomiko honetatik eratorria.

Mendi ibilbideak dira Getariaren natur inguruneek eskaintzen duten aukerarik handietako bat. Oinezkoentzako zein bizikletentzako zirkuitu sarea zabaladago, Getariako landa eremuko inguruneetan.

Itsas inguruneen ondarea hondartzak, portuak, arraldeak... jolas arrantza arauturako eta aisialdirako hainbat aukera ematen ditu. Bertako espezie, itsaski eta landaredia baloreen jartzeko herri kurrikulumerako burutzen ari diren lanaren garrantzia aipatzen da. Jakinduria eta ezagutza hori zabaldu eta sozializatu beharra.

Kezken artean berriz, nekazal jardunaren eta arrantza sektorearen beherakada aipatzen dira eta horiekin batera ondare material eta inmaterial oso batena. Adinekoen natur ingurunearekiko jakinduria baliatzeko beharra aipatzen da. Itsasoaren zentralitatea galdu du Getariak eta arrainekin eta itsasoko lanbideekin harremana oro har. Aldiz beste harreman mota batzuk aurrera egin dute, hala nola kirola (surf, igeriketa, arrauna...) edo moilako jolas arrantzak. Turismoaren izaera inbasiboak ingurunean uzten duen zaboretaren kutsatze maila ere aipatzen da kezken artean.

PROPOSAMENAK

Parte hartze prozesuaren emaitzetatik ateratako ondorioak eragileekin kontrastatu eta hainbat proposamen landuko dira. Proposamen hauek jasotako kezka, asmo eta iritzietatik abiatzen dira eta atzoko zein gaur egungo eta biharko Getaria dinamizatzea eta proiektatzea dute helburu. Aldi berean herriko eragileen sartzea, elkarlana eta herritarren kohesioa indartzea dute zehar-helburu. Proposamen hauetan guztietan eta aurerantzean sortuko direnetan ere, herriko eragileen inplikazioa ezinbesteko baldintza izango da, zeina parte hartze foro berriaren bidez gauzatuko den. Hauek dira orain arteko proposamenetako batzuk

Proposamen transbertsalak:

1) Parte hartze foro iraunkorra sortzea

Lan honen ondorioetan oinarrituta, Herri identitatearen proiektzio eta dinamizazio prozesuari segida emango dion foroaren osaketa eta abiatzea. Bertan parte hartuko dute: udal zinegotziek, teknikariek eta aldiroko proiektuetan inplikaturako herri eragileek. Foro honetan proiektuen diseinua, abiatzea, jarraipena eta inplementazioa landuko da parte hartzen duten eragile guztien artean.

2) Totem informatiboaren ezarpena herri erdigunean

Lan honetan jasotako ondorioetatik abiatuta, herrian, x aldiro informazioa aldatuko duen zutabe finko bat ezartzea proposatzen da, bertako eta bisitariarentzat Getariako informazioa eta herri ikuspegi zabalduko duena. Herriko paisaian elementu berri bat izango da, erreferentziatzeko topaketa puntua eta erakusleihoa.

3) Turismo web orrian eta administrazioaren erakusleihoko digital zein fisikoetan txosten honen ondorioetatik jasotako hainbat ikuspegi txertatzea.

Herriko eragileen parte hartzen prozesutik ondorioztatutako hainbat ikuspegi eta eskaintzaren egokitzapena eta errelatoaren lanketa egin eta ondorioak bisitariari eskaintzen zaien informazio guneetan txertatu.

4) Ondorioztatutakoetatik, emakumezkoaren ikusgarritasunean eta errekonozimenduan eragingo duten aldaketak sustatzea. Herriko eragileekin batera landu eta gizarteratu.

Oro har transbertsalki ondorioetan jasotako ezaugarri-ikuspegi guztietan.

Bereziki:

- Getaria Itsas herriaren errelatoan
- Ondarearen ikuspegiaren eta historiaren kontakizunean
- Herriko jai egunetan
- Herriko iruditegian, kale eta leku izendegietan
- ...

5) Panel informatiboak herriko interesguneetan

Lan honen ondorioetan oinarritutako panel informatiboaren ezarpena. Dokumentazio bilketa prozesua burutu eta errelato egokitzapenak landu ondoren, prozesu honetan aipatutako herriko ondare materiala eta inmateriala gizarteratzeko eta herriaren indetitatea definitzen duten hainbat ezaugarri erakutsi eta finkatzeko helburuz burututako panel informatiboak ezartzea hainbat gune estrategikotan: Moila, San Anton mendia, herri erdigunea, Artzape, Kataprun...

Ondorioetatik ateratako landu beharrekoak:

- Moilako bizitza, itsas ondare inmateriala (arrantza moduak, lanbideak, terminologia, toponimia...) ikuspegi historikoa.
- San Anton mendia landaredia, fauna, historia eta ikusmira.
- Gastronomia (parrilla, arraina,
- Herri kurrikulumaren lanketaren egokitzapena.

6) Herri Kurrikulumaren sozializazioa:

Herri Eskola burutzen ari den Herri kurrikulumaren osaketa lanak jarraibidea eskatzen du, bestelako orain artekoa ezerezean geratuko da. Aldi berean sozializazioa eta konplizitateak eskatzen ditu. Herri kurrikulumaren lanari jarraipena emateko lanpostuaren jarraipena: egokitzapenak, garapenak, sozializazioa.

Herri kurrikulumaren txokoa Artzapen.

Turismo eragileentzako herri kurrikulumaren egokitzapena: hotelak, upategiak, ostalaritza... Urteroko Gin kana eguna Herri kurrikulumean oinarritutako Getaria eguna bihurtu Urritzarekin eta guraso elkartearekin

7) Herri jakinduriaren gordailua:

Beka edo diru laguntza bitartez Getariako ondare inmateriala jasoko duen ikerketa eta argitarapena sustatzea: arrantza, itsas jarduerak, baserria, lanbideak, ohiturak, leku izenak.

Emakumezkoaren ikusgarritasun eta errekonozimendu gabeziatik abiatuta, Getarian emakumezkoen errelato historikoa egingo duen lana eta argitarapena abian jarri.

8) Getariar identitatearen ikuspegi eguneratua

Getariarra izatea zer da gaur egun? historikoki finkatutako Getariako itsas gizon eta marinelen herri horretatik gaur egungo getariarretara ekarri gaituen genero identitate eta jatorri, sexu aukera, lanbide, errealitate anitzetarainoko errelatoaren lanketa eta ezarpena herrian euskarri edo argitarapen desberdinetan. Bereziki emakumezkoari eta migrazioari arreta eta lanketa eskaini.

9) **Euskararen gizarteratzea eta ikusgarritasuna:**

Euskararen erabileraren kezka batetik, turismoaren eragin linguistiko inbasiboa bestetik zein orokortuak dauden faktoreak kontuan harturik lan honen ondorioetan, euskararen erabileran eta gizarteratzearen aktibazio bat proposatzen da.

Kanpo proiektioari begira: Bisitarien begietara jarri erakusleihu informatibo guztietan: web orri, ostalaritza eta kaleetan. Oro har, euskararen presentzia balorean jarri ohikoa ez den eremuetan ere.

Euskara integrazio bide gisa aurkeztu eta ahalbidetu herriratzen diren etorkinentzako harrera protokoloan.

Ondorioetatik abiatuta eta ikusitako beharra dela eta, Euskara taldearen sorrera bultzatu herriko eragileekin burututako lan prozesua.

10) **Arrantza, mundua, itsas mundua, baserri mundua prestigiatzea eta sozializatzea**

Kezka orokortua da ondare material zein inmaterialaren galera,. Getaria arrantzari lotutako aro historiko baten aldaketan dago. Hala ere sinbolismo mailan jarraitzen du herriaren ikur nagusia izaten kanpo proiektioan eta identitatearen errelatoan. Misio bat daukagula ikusarazi, kontzientziazio lan ildoak: gain beheran dagoen itsas mundua biziarazi, transmisioa, sozializatu eta prestigiatu.

Totem informatiboa, Artzape herri aldizkaria, Herri eskola, webgunea, sare sozialak eta Ostalaritza erakusleihu gisa erabili itsas kultura sozializatu eta prestigiatzeko.

Arrantza denboraldi bakoitzaren sozializazioa herrian, ostalaritzan, eskolan.

Denboraldian gaude afixak sortu denboraldi bakoitzeko arrainekin herriko ostalaritzan jartzeko.

- Jubilatutak eskolara. Herriko haurren aiton amonak.
- Arrantzontzi hornitzaileak prestigiatu. Ostalaritzan eta eskolan.
- Herri enbarkazioak, arraunaren gizarteratze herrikoia: Arraunerako udal batelak eraiki eta alokagai ezarri. Arraun elkartearen bidez, kuadrilen arteko estropada antolatu jaien bueltan. Ginkana egunean.
- Sirenaren berreskurapena. Urtean zenbait egun sinbolikotan sirena hotsa jarri.

Sare konpontzaileen lanean hobekuntzak eskatu. Lanbidea sozializatu.

- Lanbidea sozializatu eta errekonozimendu soziala:
- Lanbidearen berri eman erakusleihu informatiboetan.
- Historia jasoko duen lana: Liburua, ikus-entzunezkoa.
- Neguan lan eremua babestu.
- Aldarrikapenak jaso eta bitartekari lanak egin: Praktiketarako diru laguntzak eskatu.
- Erakustaldiak egin: Herri eskola, plazan.

Bestelako proposamenak

A) San Anton mendia:

Herritarrentzako espazio gabeziaren aipamen ugariak direla eta espazio berri horien sorrera eraginez, herritarrak San Anton mendira begira jarri:

- Kultur jardueren plaza bihurtu udaberritik udazkenera: Inplikatu musika eskola, irakurle taldea, gazte mugimendua.
- Landaredia eta hegaztien panel informatiboak ezarri.
- Bisita gidatuetan integratu.
- Historia liburua.

B) Kultura espazio eta eragile berrietara

Plaza eta espazio berriak eraiki asmoz eta jasotako zenbait gabeziari aurre egin ahal izateko, musikazaletasuna, euskara eta irakurzaletasuna sustatzeko proposamena. Eremu desberdinetako herri eragileen saretzea bilatzen duena. Emanaldi kulturalak burutu ez ohiko lekuetan, musika banda, irakurle taldea, euskara taldea inplikaturako ekimenak burutu herri eskolan, jubilatuentzat, hotel, nekazal etxe eta ostalaritza eremuan, natur inguruneetan (San Anton mendian, auzoak...) eta oro har, herriko espazio berri eta desberdinetan.

C) Herri identitatearen horma irudia

Getariaren Herri identitateari buruzko parte hartze prozesuaren ondorioetan oinarrituta, herriaren ezaugarri hauek guztiak jasotzen dituen horma irudi handia egin herri erdigunean. Herriko ikur artistiko eguneratua izango da bertakoentzat eta bisitariarentzat aldiz, erakusleiko artistiko-informatibo berri bat.

D) Moilako eguna

Getaria beti izan den moilako herriren gaon behera dela eta, ondare horri bizi berria emango lioken herri mailako jarduera parte hartzailea sortu, egun erreferentziala.

Moilako eguna egin.

Lanbide erakustaldiak, itsas jarduerak, koadrilen estropadak, hitzaldiak, erakusketa, musika, gastronomia eta hainbestetan aipatua den eta hain Getariakoa den Arrain nahastuen bazkaria.

E) Epe ertain eta luzerako begirada

Beste hainbat proposamen ere jarriko dira lanketa bidean, parte hartze prozesuaren ondorioei jarraipena eta garapena emanez, epe ertain eta luzerako begiradarekin eta gai bakoitzari dagokion herriko eragile bakoitzaren adostasun eta inplikazioarekin, proposamen berrien lanketan murgilduta dago jadanik udala.

ONDORIOAK

GETARIA ITSAS HERRIA BASERRI HERRIA LEHEN SEKTOREKO HERRIA

EKONOMIA INDARTSUA
GIZARTE EGITURA TRADIZIONALA
GIZONEZKOEN GIZARTE EREDUA
ETA ERREFERENTIALTASUNA
EMAKUMEAREN MENPEKOTASUNA ETA IKUSTEZINTASUNA
GIZARTE EHUNDURA INDARTSUA



ARRANTZA ETA BASERRIAREN GAINBEHERA

LEHEN SEKTOREAREN PISU EKONOMIKOAREN MURRIZTEA
TRANSMISIO ETA JAKINDURIA GALERA, TRANSMISIO ETENA
OSTALARITZA HORNIKUNTZA ARRISKUAN
GIZARTE EHUNDURA ALDAKETA



GETARIA TURISMO HERRIA
OSTALARITZA UPELTEGIAK AISIALDIA ZERBITZUAK
ITSASOAREN ETA BASERRIAREN ERABILERA BERRIAK
BISITARIEI BEGIRAKO HERRI MOLDEA
TURISMOAREN IZAERA
ETXE BIZITZA, APARKALEKUAK, HIZKUNTZA, PREZIOAK



GETARIA ZAHARRA VS GETARIA BERRIA

ITSAS ETA BASERRI HERRIA VS TURISMO ETA ZERBITZU HERRIA
GIZARTE EHUNDURA TRADIZIONALA VS GIZARTE OHITURA BERRIAK
GIZONEZKOEN NAGUSITASUNA VS EMAKUMEZKOEN BERDINTASUNA
GETARIAR TRADIZIONALA VS GETARIAR BERRIAK: ETORKINAK
SEXU IDENTITATE BERRIAK, HIZKUNTZAK
IRUDITEGI ZAHARRA VS IRUDITEGI BERRIA
ZAINZA EREDU TRADIZIONALA VS BEHAR BERRIAK
UDAL EREDU TRADIZIONALA VS EGITURA ETA POLITIKA BERRIAK
KOMERTZIO TRADIZIONALA VS KONTSUMO OHITURA BERRIAK

NEURRIAK

**TRANSMISIO KANALAK SORTU
PARTE HARTZE FOROA SORTU
EHUNDURA BERRIAK ERAIKI
IRUDITEGI BERRIA ERAIKI
HERRI KOHESIORAKO EKIMENAK SORTU
LEHENTASUNEN EZARPENA:
TURISMOA, ZAINZA ETA GIZARTE ZERBITZUA
ITSAS KULTURAREN TRANSMISIOA, DUINTZEA ETA
PRESTIGIATZEA
HERRI KURRIKULUMARI JARRAIPENA EMAN
HERRITARRENTZAKO ESPAZIO BERRIAK
GETARIAR IDENTITATE BERRIEN IKUSGARRITASUNA
EMAKUMEZKOAREN BERDINTASUNA ETA IKUSGARRITASUNA
GAZTE EHUNDURA BERRIA**